

OLAZTIKO UDALEAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

-2013ko abuztuaren 28ko 165. NAOn argitaratuak

**-2014ko marxtoaren 31ko 61. NAOn argitaratutako Nafarroako Administrazio
Auzitegiaren Ebazpenaren ondorioz aldatuak**

1.–Udalaren komunikazio harremanak.

Udalak hiru komunikazio harreman mota, bere eguneroko zereginean: herritarrarekiko harremanak, beste administrazio batzuekiko harremanak eta Udalaren beraren barne harremanak. Harreman horiek hiru modutan gauzatzen dira: ahoz, idatziz eta modu telematikoan.

1.1. Ahozko adierazpenak.

Udalak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko ditu bere zerbitzuak, betiere kontuan harturik solaskidearen/herritarraren hizkuntza aukera, berarekin hizkuntza batean edo bestean komunikatzeko. Nolanahi ere, Udaleko langileek, lehen harremana, euskaraz ezarriko dute ahozko joan-etorri guztietan (telefonozkoak, harreraguneetan etab.) eta solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Betiere errespetatuko da solaskidearen hizkuntza aukera, inolako deserosotasunik sortu gabe.

Euskara herritarren artean erabil dadin, modu egokian adieraziko da zer langilek dakiten euskaraz, eta hizkuntza horren erabilera bultzatuko da.

Hartzaile zehatzik ez duten ahozko mezuak (erantzugailu automatikoan, megafoniaz eta barren bidez jaulkiriko mezuak) euskaraz eta gaztelaniaz emanen dira, ordena horretan.

1.2. Idatzizko adierazpenak.

Bi kasu aztertu behar dira: Udala denekoetan dokumentazioaren igorlea, eta hartzailea denekoetan.

Udala denekoetan dokumentazioaren igorlea, adierazpena bi hizkuntzetan eginen da.

Horretaz aparte, Udalak bere idatziak euskaraz bidaliko ditu, honelakoetan:

–Herritar batek, beste administrazio batek edo Udaleko bereko langile batek aldeztu aurretik adierazi badu lehentasuna ematen diola euskarazko komunikazioari.

–Ohiko komunikazioa erabat euskaraz denean; halakoetan ulertuko da lehentasuna eman zaiola euskarazko komunikazioari.

Udalak jasotako agiri bati erantzuna eman behar dionean, honela jokatu beharko du:

–Orokorrean, bi hizkuntzetan erantzunen die bi hizkuntzetan jasotako agairiei, betiere aukera izanik euskara hautatzeko.

–Euskaraz erantzunen die euskaraz jasotako agiri guztiei.

Agiri hauek beti euskaraz egingen dira: Bandoak, ediktuak, ziurtagiriak eta adierazpenak.

1.3. Komunikazio telematikoa.

Tramitazio elektronikoa, informatikoa edo telematikoa herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingen dira, euskaraz izan edo gaztelaniaz izan. Nolanahi ere, sistemak aukera emanen dio herritarrari jaskinarazpena edo tramitazioaren azken ziurtagiria bi hizkuntzetan jasotzeko.

Udalan erabili beharreko inprimakiak, bai euskarri tradizionaletakoak bai teknologia berrien bidezkoak, euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dira.

1.4. Euskarari lehentasuna emateko neurriak bi hizkuntzetako adierazpenetan.

Bi hizkuntzetako euskarri guztietan lehentasuna emanen zaio euskarri (elebitasun normalizatzailea). Horretarako, gutxienez ere, bi estrategia erabili daitezke:

–Kokalekua: hitzen kasuan, euskaraz agertzen direnak aurretik edo gainean joan daitezke; zutabeak izanez gero, ezkerrekoa euskarazkoa litzateke, eta orriak izanez gero, euskarazkoa eskuinekoa litzateke.

–Tipografia: tamaina eta letra mota erabili daitezke euskarazko testua nabarmentzeko.

1.5. Euskara hutsezko komunikazioak.

Udalak zerrenda bat egingen du bere idatziak euskara hutsez jaso nahi dituzten herritarrekin.

2.–Lan hizkuntza.

Informazio eta betearazpen organoen bileren deialdiak bi hizkuntza ofizialetan egingen dira, salbu eta euskara lan hizkuntzarako aukeratu duten organoetan; azken hauek euskara hutsean egon behar dira, eta haien itzulpena eskatzen dutenei baizik ez zaie bidaliko.

Bilerak zer hizkuntzatan egin diren, hartantxe jasoko dira Tokiko Gobernu Batzarraren eta informazio organoen aktak. Irizpide bera erabiliko da osoko bilkuren aktetarako. Nolanahi ere, Osoko Bilkuran eta Tokiko Gobernu Batzarrean ematen diren ebazpenak euskaraz ere idatziko dira, bilera gaztelaniaz egin bada ere.

Ordezkeri guztiak izendatzerakoan, izanik horiek barnekoak nahiz kanpokoak (batzordeburuak, mankomunitate, entitate, sozietate eta bestelako organoetako ordezkeriak) kontuan hartuko da euskaraz dakiten ala ez.

3.–Hizkuntza paisaia.

3.1. Irudi korporatiboa.

Irizpide orokorra: Entitatearen irudi korporatiboa osatzen duten elementu guztiak bi hizkuntzetan egonen dira, besteak beste, honako hauek: zigiluak, tanpoiak, logotipoak eta idazpuruak, eta orobat toponimia txiki ofiziala (kale, plaza, eraikin eta hiriko gainerako elementuen izenak).

3.2. Errotulazio finkoa eta noizbehinkako jakingarriak.

Instalazioetan jendeari begira dauden informazio euskarriak, hau da, errotuluak eta noizbehinka jartzen diren jakingarriak, betiere bi hizkuntzetan egonen dira.

3.3. Argitalpenak.

Irizpide orokorra: Hartzaile jakinik gabe argitaratzen diren agiriak (Udalaren jardueren programazioak eta agendak, informaziorako liburuxkak, ekitaldi publikoen liburuxkak eta kartelak) bi hizkuntzetan egonen dira. Ekitaldi, hitzaldi edo antzerkien zabalkuntza egiterakoan, komeni da izenburua jatorrizko hizkuntzan mantentzea, baina, jardueraren laburpena, iruzkina edo sinopsia eginez gero, hura bi hizkuntzetan egonen da.

3.4. Publizitatea.

Udalaren iragarki ofizialak eta gainerako publizitatea bi hizkuntza ofizialetan egingen da. Nolanahi ere, iragarkiak euskara hutsez aterako dira euskarazko hedabideetan.

4.–Jendaurreko ekitaldiak.

Udaleko kargu eta langileen aldetik, euskararen erabilera bermatuko da prentsaurreko, ekitaldi instrituziona, mintzaldi, mahai inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro eta erakusketetan, betiere haren ordezkari aritzen direnean, Hartara, ekitaldi horietarako, euskara maila egokia duen jendea izendatuko da. Komunikazioaren teknologiak ematen dituen aukerak baliatuko dira, euskara eta gaztelania erabiltzeko; konparaziorako, hizkuntza batean egindako ahozko adierazpen bat bateratzen ahalko da beste hizkuntza batean egindako euskarri informatikoaren laguntza egindako adierazpen batekin.

5.–Langileak.

Udalak, plantilla organikoa prestatzeko garaian, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna ezarriko du. Hartara, Udalean lanpostu bat eskuratzeko, oposizio, lehiaketa eta barne igoeretan, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna bete beharko da.

Sakanako Mankomunitateak eta Udalak izanen dute hizkuntza eskakizunak ezartzeko ardura. Hizkuntza eskakizuna ezartzean, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

–Lanpostuaz arduratuko den lagunak egin beharreko lanak.

–Zer harreman mota izanen duen administratuekin, ahoz nahiz idatziz.

Hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten langile guztiei aitortzen zaie bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna; beraz, aitortzen zaie bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko, zerbitzuaren beharren arabera.

Udalak laguntza emanen die Udaleko langileei euskaraz ikas dezaten, eta Sakanako Mankomunitatearekin batera, hizkuntzetan gaitzeko planakl prestatuko ditu.

6.–Kontratazio administratiboak.

Herritarrari aitortzen zaio kontratu bidez egiten diren jarduera eta zerbitzuek Udalak berak egiten dituenek dituzten baldintza beretan eginak izateko. Hartara, enpresa kontratatzaileak, bere zerbitzuak eskaintzean, errespetatuko du herritarrak informazioa bi hizkuntza ofizialetan jasotzekoduen eskubidea. Baldintza-agirietan nahitaez jasoko dira hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak.

Kontrataziorako administrazio klausula partikularren agiriak eta baldintza teknikoak bi hizkuntza ofizialetan egingen dira. Era berean, Udalak sinatzen dituen kontratuak euskaraz eta gaztelaniaz egonen dira.

7.–Elementu informatikoak eta aplikazioak.

Merkataritzako eta erabilera orkorreko programa informatikoen euskarazko bertsioa baldin badute, horiek erabiltzeko euskara maila duten langileei instalatuko zaizkie. Bestalde, Udalean berariaz lan egiteko prestatutako programa edo elementu informatikoak prestatuturik egonen dira bi hizkuntzetan erabili ahal izateko.

8.–Euskararen sustapena.

Udalak, Sakanako Mankomunitatearekin batera, lan egingen du euskara jakin eta erabili dadin eremu guztietan eta euskararenganako jarrera hobe dadin.

9.–Araudia.

Udalak euskararen ordenantza onetsiko du, eta onetsia baldin bada, berrikusiko.

Udaletako euskara batzordeek eskumena izanen dute ordenantzaren segimendua egiteko eta egiaztatzeko betetzen ote den. Gainera, proposamenak egin ahal izanen ditu edozein gairen gainean, hura bete dadin.